I IRAŔKALDIJA



# EUZKEL-ABESTIJAK.

I INGUŔAZTIJA.

EUZKELTZALE-BAZKUNA'K ARGITALDUBA.

BILBAO
1915

upna

# EUZKEL - ABESTIJAK

## I INGUṘAZTIJA

Euzkeltzale-Bazkuna'k argitalduba

I iraṙkaldija

BILBAO
1915

upna

# BIĹABIDIA


1 Euzko-Abendea'ren Ereseŕkija.
2 Goiko Mendijan.
3 Txoriĺua ¿nurat ua?
4 Ene Ama!
5 Itxasua.
6 Aŕonaren esana.
7 Uŕkiolara'ko bidian.
8 Maitia ¿nun zira?
9 Itxaŕkundia.
10 Deun-Iñaki-Ereseŕkija.
11 Gastetasunak bai-nerabila.
12 Txakuŕ galduba.
13 Nik bai-dut maiteño bat.
14 Ni Mendexa'ra.
15 Mendiko negaŕa.
16 Zelvko izaŕen bidia.
17 Deun-Jon-Abestijak.
18 Iruten ari nuzu.
19 Gaurik baltzena.
20 Bortian Ahuzki.
21 Matzaren oŕpotik.
22 Argizariak zelvtik.
23 Gabon-abestijak.
24 Txori vŕhetxindoŕa, hots, emak enekin.
25 Oŕa oŕ goiko.


upna

# Abestijak

1 EUZKO-ABENDEAREN-ERESERKIJA

( BIZKAYERAZ )




# EUZKO-ABENDEA'REN ERESERKIJA 1

(BIZKAYERAZ)

---

¡Gora ta gora Euzkadi!  
¡Aintza ta aintza  
Bere Goiko Jaun onari!

Areitz bat Bizkaya'n da  
Zar̃, sendo,  
Zindo  
Bera ta  
Bere Lagija lakua;  
Areitz-ganian dogu  
Gurutza  
Deuna  
Beti geure goi-buru.

¡Abestu gora Euzkadi!  
¡Aintza ta aintza  
Bere Goiko Jaun onari!

# GoiKo MENDiJAN

(BIZKAYERAZ)




# GOIKO MENDIJAN 

(BIZKAYERAZ)

---

Goiko mendijan
Eduŕa dago,
Eŕeka-aldian ixotza.
Neu zeugandik
Azke nago ta
Pozik daukot
Bijotza.

—

¡Ene Abeŕi
Polit-edeŕa!
¿Zeu lakorik nun dago, ba?
Zeugaz beti
Bixi gura-dot
Eldu-aŕte
Erijotza.

—

3 TXORIT̄UA ¿NURAT HUA?

(ZUBERERAZ)




# TXORIT̄UA, ¿NURAT HUA? 3

(ZUBERERAZ)

---

Txorit̄ua ¿nurat hua bi hegalez aizian?
Nabar̃a'lat juaiteko elhvr̃a dvk bortian:
Junen gvtvk alkhar̃ekin hura hurtv denian.

—

Hasperena, habilua maitiaren atela:
Habil, eta er̃an izok nik igor̃ten haidala;
Bihotzian sar̃-hakio hura eni bezala.

*Uar̃a.*—Abesti onetan eta beste batzutan ager̃tzen dan H izkija, oguzi biar̃-da abo-zabal arnasea bat-batez botarik, pantzerazko, *haut* itxan lez.—Bat̃a; V izkija *u* ta *i* bit̃ar̃tekua da, ta pantzerazko *fumée* itxeko *u* izkija letxe oguzi biar̃-da.

*Nota.*—La *h* que en este y otros cantos aparece, es aspirada como en francés *haut*.—La letra *v* tiene el sonido medio entre *u* ó *i*, como en francés *fumée*.

upna

# ¡ENE AMA!

(BIZKAYERAZ)




# ¡ENE AMA!



(BIZKAYERAZ)

---

Bixi ezta
Ludi gustijan
Ene Ama
Baxen eder̃a, baña ez
Ain gaxua.

Gustiz eder̃a
Bera dalako,
Er̃beste-pian
Jausi da...

¡Ara bat̃a,
Sor̃tu dit̃uzan
Semiok, ba,
Berari bixitxa kentzen
Dautsoela!

# ITXASUA

(GIPUZKERAZ)




# ITXASUA



(GIPUZKERAZ)

---

Itxasua laño dago
Bayona'ko alderaño
Nik zu zaitut maitiago
Txoriyak beren umiak baño.

—

Gure oroiz aita dago
Laño-pian gaberaño.
Nik zu zaitut maitiago
Araitxuak ura baño.

—

# AT̄ONAREN ESANA

( BIZKAYERAZ )




# AT̄ONAREN ESANA 

(BIZKAYERAZ)

---

Neure semian seme,
Neure il̄oba laztana,
Ezeik aiztu at̄onak
Irakasten dauskana.

Lenen mat̄e-egik beti
Geure Jaungoikua,
Eta onen uřengo
Euzkadi geure Ama.

—

Gu euzkotařak gozak,
Utz-utzez euzkotařak,
Odolez garbi eta
Gogoz sendo-zinđuak.

Geuk Euzkadi yuagu
Abeři bakařa;
Bera goraldutia
Dok geure biařkuna.

—

7 URKIOLA'RAKO BIDIAN

(BIZKAYERAZ)




# UŔKIOLA'RAKO BIDIAN 7

(BIZKAYERAZ)

I

## AUZOKUAK

–¿Ain arin
Nora yuan
Uso zurijena?

–Mendira,
Andoni'ri
Egiťera aŕena.

–¿Zein aŕen
Uŕkijola'n
Deunari eŕeko?

–España'n
Neba ona
Ez-gaiztotuteko.

II

## EZKONAK ETA LENENGO UMIA

–Jon Ander,
¿Ze eskiñiko
Yeutsagu Deunari?

–Ume au
Emongeutsan
Bijotzez Bera'ri.

–¿Zelan, ba,
Geuretxu au
Ixangok beria?

–Ba-dona
*Jaun-Goiko* ta
*Lagi-Zaŕ*-zalia.

III

## AŤIŤEA TA BIĹOBA GEXUA

Aťiťa,
¿Deuntxubari
Ze eingeutsat eskatu?

–Laztana,
Lasteŕtxuben
Agigun osatu.

–Ta ¿gero
Zelan eskaŕ
Emongo deutsat nik?

–Seme on
Ta bizkaŕaŕ
Zintzoena ixanik.

8 MAITIA ¿NUN ZIRA?

(ZUBERERAZ)




# MAITIA, ¿NUN ZIRA? 8

(ZUBERERAZ)

Maitia, ¿nun zira?
Nik etzvtvt ikhusten,
Ez beřirik jakiten,
¿Nurat galdv zira?
¿Ala althatv othe-da zure asmia?
Hitz eman zenereitan,
Ez behin, bai beřitan,
Enia zinela.

—

Alhaba dienei
Eřanen dit orori:
So-eidaziet eni,
Beha ene eřaneri;
Gasteřo direlarik untsa zvxendv:
Handitv direnian,
Berant date agian,
Nik bai-takit untsa.

upna




# ITXAŔKUNDIA



(GOIZ-ABESTIJA)

(BIZKAYERAZ)

Azkatasun-eguzkija
Basotik uŕten da,
Bere argija edonun
Arin zabaltzen da.

*¡Itxaŕtu zaiz, euzkotaŕak!*
*¡Aupa, euzkeldun gustijak!*
*¡Gora, gora antziñeko lagijak!*

—

Ixil̃ik ba-zagoz danok
¿Zer dozube entzuten?
Ara, gauŕ guda-santsuak
Gal̃uzan del̃uten.

*¡Itxaŕtu...*

—

Aŕpegija goŕil̃uta
Darakus euzkijak;
Goŕijagotuko dira
Bertoko mendijak.

*¡Itxaŕtu...*

—

# DEUN-IÑAKI-ERESEr̃KIJA

(BIZKAYERAZ)





# Oñaz-Loyola'tar̃ Iñaki-Deuna-Ereser̃kija

BIZKAYERAZ

Iñaki,
Jaungua'k bidalduba
Ludijan ixatera
Josu'ren
Gudarijen Buruba;
Batzar̃ak
Autu zindun
Bizkatar̃en
Zain Deuntzat.
Zeu zara
Zaindari ta
Jaun onena
Geuretzat.
Iñaki,
Entzun, ar̃en, eiguzu
Ta geure opea ar̃tu.
Bijotza
Bizkatar̃ak
Jayotzetik
Damotzu;
Zeuria da
Beria...

Baso, mendi, ibai, ar̃u...
Zeru-gor̃ik,
Deun-Iñaki,
Jabon, ba,
Bizkaya.
Jabo-ixu
*Jaun-Goikua,*
Jabo-ixu
*Lagi-Zar̃a;*
Areyo-aur̃ian
Zeuk agindu
Bizkatar̃ak...
Gudean sar̃turik,
Ezpatea ar̃tuta,
Bizkatar̃en aldez,
Donge ta areyua
Indar̃ zerutar̃az
Zatitu osoro ta...
Zorijontsuba
Bizkaya beti ixango da
Zeuk, Iñaki,
Zainduta.

11 GASTETASUNAK BAi-NERABiLA

( BENABAR̃ERAZ )




# GASTETASUNAK BAI-NERABILA 11

(BENABAR̃ERAZ)

Gastetasunak bai-nerabila aizian ainhara bezala,
Gabak igazten zaitzat ardura egunak ba'lira bezala,
¡Oi! ¡Ardura nabila maitiagana!

—

—Maite-nauzula zuk er̃aitiaz ni ez naiz alaituten;
Baizikan ere nere bihotza ar̃as duzu alegetzen,
¡Oi! ¡Zeren ez nauzun utzitzen!

—

—¿Maitetasunik bai-dudala ez zerauzuya bada iduri?
Itsasua igaran niro zure gatik igeri.
¡Oi! ¡Zeren zaren hain zoragar̃i!

—

—Zoragar̃iya ba-naiz ere ez nainteke izan zure:
Nitaz atsegin direnik ber̃tzerik ludiyan bai-tire;
¡Oi! Nire ganik ur̃un-zaite.

—

upna

# TXAKUŘ GALDUBA

(BIZKAYERAZ)




# TXAKUŘ GALDUBA 

(BIZKAYERAZ)

Txakuř goři-polit bat
Galdu yaku guri;
Ezaugarija bauko,
Argiťu ba'ledi.

Belaři baltzak eta
Bustana beľegi,
Iruntsiko leukela
Ogiťan libra bi.

—

Nik maťe-dot bijotzez
Euzkadi edeřa,
Euzkadi bai-dalako
Euzkotařen Ama.

Ene Ama kuťuna,
Maťe-laztantxuba:
Eutsi neure bijotza
Ta neure gogua.

—

13 NIK BAI-DUT MAITEÑO BAT

(BENABAŔERAZ)




# NIK BAI-DUT MAITEÑO BAT 13

(BENABAŔERAZ)

Nik bai-dut maiteño bat, ¡oi! ¡zoin hura lako!
Ez da tipi ez handi, bai bien aŕteko;
Begia du edeŕa, urdin ezti oso,
Bihotzian saŕthu zaut ez baitzaut jelgiko.

—

¿Oztian zenbat izaŕ, maitia, ahal-da?
Zure baŕdinik ene begietan ez da;
Neke zaut juaitia, maitia, zuganik;
Aguŕ eŕaiten dautzut bihotz-bihotzetik.

—

(BIZKAYERAZ)

¡Oi, Abeŕi laztana, nik maŕe-zaudana!
Ikusi gura-zenduket azke ta garbija.
Neure bijotz-jabia zeu bakaŕik zara;
Pozik, zebaŕen, emongo neuke neure bixitza.

—

# Ni MENDEXA'RA

( BIZKAYERAZ )




# NI MENDEXA'RA



(BIZKAYERAZ)

---

Ni Mendexa'ra Deun-Kepa-aldijan
Bai-nua, bai, jayetara.
¡Arek, bai, neskatxak
Edeřak, lirañak
Lekeřiařen aldian
Mendexa baseřitxuban!
Ta Jon-Deunan, ta Jon-Deunan
Beti zaukodaz goguan.

—

Igaztik ona urtebetia da,
¡Aldi ořeren luzia!
Ordutik ona
Gau ta egunetan
Aldatu leike gastia,
Aldatu leike gastia,
Ta Jon-Deunan, ta Jon-Deunan
Beti zaukodaz goguan.

—

15 MENDIKO NEGAR̃A

(BIZKAYERAZ)




# MENDIKO NEGAR̃A 

(BIZKAYERAZ)

---

*Ene Aber̃i laztana*
*jausi zara er̃bestepian...*
*¡Obia erijotza da!*

Zeure basotik
Atzo igoten zan
Eskar̃i ona
Zerura.
Gaur̃ er̃deldunak
Sar̃tuta,
Axia emen
Birauz bete da,
¡Zelan ondiño il etzara!

Gurutz zurija
Baltzir̃u da ta
Areitz or̃leya
Orir̃u.
Geratu ezer
Etxatzu:
Seme onik,
Ama, eztozu.
¡Il, Aber̃ija, zakigu!

—

Ekandu onak
Asabeari
Zoruna emon
Len eutsen,
Ara motzenak
Gaur̃ emen
Zeure bijotz
Garbija usteltzen
¡Ta zeu, Ama, etzara iltzen!

Ez-egin negar̃:
Etzaut, Ama, nai
Negar̃-egiñik
Zu ikusi:
Zeure negar̃ok
Motzari
Eragir̃en
Dautso bar̃e-ir̃i.
¡Il, Ama, laster̃! ¡Il zadi!

—

# ZELVKO IZAREN BIDIA

( ZUBERERAZ )




# ZELVKO IZAREN BIDIA 

(ZUBERERAZ)

Zelvko izaṙen bidia
Nik ba'neki,
Han niro ene maite gastia
Zvxen khausi;
¡Bena gauṙ jagoiti nik hura
Ez ikhusi!

—

Haritz gaste bat nik aihotzaz
Ebakirik
Vdvri zait ene bihotza
Zauritvrik:
¡Eṙuak eroriko zaitzola
Eihaṙtvrik!

—

Zeren beitzen lili ororik
Eyeṙena
Bai eta ene bihotzeko
Maitenena,
¡Haren izanen da ene azken
Hasperena!

—

# DEUN-JON-ABESTIJAK
(BIZKAYERAZ)




# DEUN-JON-ABESTIJAK 

(BIZKAYERAZ)

Deun-Jon'az zorgin, eltxo ta zoři
Gustijak dira eřetan,
Soloetako landara onak
Garbi geratu dařezan.

Gure Abeři-ekandu onak
Gustiz garbirik izteko,
Itz dongea ta jantza zikiña
Eře daiguzan betiko.

*¡Gora, gora, gora garbiřasuna!*
*¡Aupa, bizkoř egin subari bira!*
*¡Ujuju!*
*¡Deun-Jon'agana guaz gu!*

I

Alkařekin eskutik elduta,
Ikotika ta bařeka,
Geure bijotz-goguaren poza
Erakutsi bilduřtzeka.

*¡Gora, gora neskatil euzkotařak!*
*¡Aupa, bizkoř egin bira ta bira!*
*¡Ujuju!*
*¡Abeřtzaliak gara gu!*

II

Ořtik ziař dabiltz txoritxubak
Samuř-samuřez pioka;
Abeři-txoritxubak geu gara:
Asi gadixan santsoka.

*¡Gora.....*

III

Euzkadi da geure Abeřija,
Bijotzaren mařetsuba:
Opaldu dagijogun berari,
Loraz einda, burestuna.

*¡Gora.....*

18 IRUTEN ARI NUZU

(LABURDERAZ)




# IRUTEN ARI NUZU 18

(BENABAŘERAZ)

Iruten ari nuzu, khilua geřian,
Ardura dudalarik nigařa begian.

—

Hořek eřaiten dute: ezkondu, ezkondu;
Nik ez dut ezkon-minik, gezuřa diote.

—

(BIZKAYERAZ)

Benetan da polita geure Abeřija;
Bijotzez maře-daigun, berak maře-gaxan;
Gustirik gaxoena da-ta geure Abeřija.




# GAURIK BALTZENA



## (ARATS-ABESTIJA)

### (BIZKAYERAZ)

¡Dan... dan... dan...!
Eguzkijak iges-einda,
Dana ilundan.

Euzkadi estal
-Bei gau-pian,
Lagi-Zara gal-eban ta
Baltziñu zan.

# BORTIAN AHVZKI

(ZUBERERAZ)




# BORTIAN AHVZKI 

(ZUBERERAZ)

Bortian Ahvzki, hur hunak osoki;
Neskatila eyeřak han dira ageri;
Hirur bai-dirade, ¡oi! bena leřdenik,
Beko Nabař orotan ez dvte beřdinik.

—

Neskatila eyeřa, ¡oi begi-nabařa!,
¿Nuntik jin izan zira bortv-gain huntara?
Garazi'ko aldetik nahi-nian bezala,
Ahvzki-vthvřila hur hotzen hařtzera?

—

Goizetan edeř dizv ekhiak leinhvrv,
Lvdia argitzen dizv vngvrv-vngvrv;
Ni ere zv-unduan hala nabilazv:
Eia maite-naizvnez, ¡othoi, eřadazv!

(BIZKAYERAZ)

Mendijan axia garbi ta edeřa,
Bertan indařtuten da sendoro bulařa.
Antxe dozu, gaste, osasun betia:
Ixan zaře ba beti mendigoxalia.

upna

21 MATZAREN OŔPOTIK

(BIZKAYERAZ)




# MATZAREN OŔPOTIK 

(BIZKAYERAZ)

---

Matzaren oŕpotik datoŕ
    Mama gozua,
    Mama gozua,
Edango neukela
    Beterik basua:
        ¡Klink!
    Beterik basua.

    Nik zuri,
    Zuk niri
Aguŕ-egiñaz alkaŕi,
Basua txit garbi
Biaŕko da ipiñi.

22 ARGIZARIAK ZELVTIK

(ZUBERERAZ)






# ARGIZARIAK ZELVTIK

(ZUBERERAZ)

Argizariak zelvtik
Argitzen dizv eyeřki;
Ene maite polita eztvzv ageri
¡Zelvko Jinko Jauna! zer eginen dvt nik,
Zer eginen dvt nik.

—

— Zvri nurk zinhetsi eztvzv,
Gvziak eřiz ari zaitzv;
Bathv orotzaz atsegin zira zv,
Bat hař-ezazv, hura aski dvkezv,
Hořez baitin nvzv.

—

— Vrzo-aphalaren zoria
Galdvzgeroztik lagvna!
Alege da bethi bere bihotzetik,
Zeren ezpaitv maithatv bat baizik,
Maithatv bat baizik.

—

Maitetařzvn beřiak
Sendotzen tizv eriak;
Zure begiak dira ezti-argiak
Zeren baitira eniak zuriak,
Zuriak eniak.

upna

23 GABON-ABESTIJAK

(BIZKAYERAZ)




# GABON-ABESTIJAK 

(BIZKAYERAZ)

¡Atoṙ, atoṙ, mutil etxera!
Gastaña zimelak jatera;
Gabon-gaba ospatuteko
Aṙaren ta Amaren onduan.
Ikusiko dok aṙa baṙeka,
Ama, be, poz-atsegiñez.

Eragijok, mutil,
Auṙeko danbolin oṙi;
Gastañak eṙe-aṙtian
Txipli, txapla, pun,
Gabon-gaba pozik
Igaro daigun.

24

# TXORI, VR̃HETXINDOR̃A, HOTS, EMAK ENEKIN




# Txori vr̃hetxindor̃a, hots, emak enekin 24

(ZUBERERAZ)

---

Txori vr̃hetxindor̃a, hots, emak enekin
Maitiaren atela biak alkhar̃ekin;
Erakutsi izok gero ahots ezti batekin
Haren adizkide bat bai-dela hirekin.

—

Heltv ginenian maitiaren atela,
Horak hasi zeizkvn txanphaz berhala,
Laster̃ egin gvnian bertan eskvtatzera;
Vr̃ketxindor̃a igain zvhain batetara.

—

(BIZKAYERAZ)

¡Oi, txori polir̃a! ¿Zer abil or̃ abesten?
¿Aber̃ijan azkena daustak iragar̃ten?
Ezeistak olakorik ar̃atu be, ar̃en;
Gurau-neukek ildia neu-Ama baño len.

upna

25 OŔA OŔ GOIKO
(BIZKAYERAZ)




upna

# OŔA OŔ GOIKO 

(BIZKAYERAZ)

Oŕa oŕ goiko
Areiztitxu baten
Kukubak umiak
Egin yozak aurten.
Kukubak egin,
Amiĺotxak jan,
¡Axe bere kukubaren
Zoritxaŕa zan!

—

¡Aupa, mutiĺak,
Gogoŕ jantza-egin!
Mai onen gañian
Izteai eragin.
Bijotz alaya
Beti geuria,
Zirkin eta zirkin
Jardun atseden-baga.

—

*Alvarez Ormiluge'tar Josu'ren Irarkolan*

*Viuda de Epalza, 6*

*BILBAO*

upna

upna